



EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA, Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekainaren 23a.

Partaideak:

- Miren Azkarate andrea, Kultura sailburua eta bileraren buru, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánchez Robles jauna duela laguntzaile eta idazkari lanetan.
- Gurutz Larrañaga jauna, Kultura Sailaren ordezkaria.
- Mikel Burzako jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren ordezkaria.
- Konrado Mugerza jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- Jesús Monreal jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkaria.
- Marian Elorza andrea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkaria.
- Sonia Samaniego andrea, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Etxebizitza Sailburuordetza).
- Marisa Arteagagoitia andrea, Osasun Sailaren ordezkaria.
- Luis Javier Tellería jauna, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkaria.
- Mikel Legarda jauna, Herrizaingo Sailaren ordezkaria (Segurtasun Sailburuordetza).
- Luis M^a Sautu jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Jon Iñaki Zarraga jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.
- José Ignacio Insausti jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Arritxu Marañón andrea, Donostiako Udalaren ordezkaria.
- Idoia Garmendia andrea, Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- Joseba Mirena Zorrilla jauna, EUDELen ordezkaria.
- Alicia Suso andrea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Gotzon Baraia-Etxaburu jauna eta Helena Ortiz de Lejarazu andrea, Kualitate Lantaldetik.
- Oro Ochoa de Eribe andrea (Eusko Jaurlaritzako Gazteriako burua), Bakarne Zuazua andrea (Gazteen Euskal Behatokiaren arduraduna), Fco. Javier Gutiérrez jauna, Jesús A. Pérez Arrospide jauna, Josu Gerediaga jauna, Fernando Aguirre jauna eta Agurtzane Iriondo andrea (Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzako teknikariak).

Ezin etorria adierazi dute:

- Jon Aritz Bengoetxea Donaire jaunak, Bilboko Udalaren ordezkariak.
- Mikel Torres jaunak eta Mainer Otamendi andreak, EUDELen ordezkariak.



Agur labur baten ondoren, Kultura sailburuak 10:15ean eman dio hasiera bilerari eta gai-zerrendaren lehenengo puntuari heldu dio.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

2003ko abenduaren 3ko Zuzendaritza Batzordearen aktaren idazketari dagokionez, Kultura sailburuak kontrako iritzirik dagoen galdetu du. Ez da horrelakorik egon eta, horrenbestez, akta onetsi egin da eta sailburua gai-zerrendaren bigarren puntua lantzera igaro da.

2. II Gazte Planaren 2003ko jarraipen txostena onartzea, hala badagokio.

Miren Azkaratek txostena aurkeztu du, bertaratutakoei banatu zaien bitartean. Bertan honako atal hauek bereiz daitezke:

1. II Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapen ekintzen zerrenda.
2. Instituzio bakoitzak burututako ekintza positiboen kopurua eta gastua eta instituzio bakoitzak garatutako ekintza positiboen zerrenda, erabili den aurrekontua zehaztuta.
3. Enpleguari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta II Gazte Planean finkatutako helburuen arteko osagarritasun eta uztardura mailari buruzko txostena.
4. Balorazio orokorra.

II Gazte Planaren koordinazio mekanismoen ildotik, Miren Azkaratek, lehenik eta behin, Zuzendaritza Batzordearen 2003ko abenduaren 3ko bilera aipatu du. Zuzendaritza Batzordearen bilera hura legegintzaldi berrian sartutako aldundi eta udaletako ordezkari berriek izan zuten lehena izan zen. Bertan 2002ko Ebaluazio kuantitatiboa ontzat hartu zen. Era berean, 2004ko programazioa ere onartu zen, gazteen aldeko ekintza positiborako instituzio bakoitzak hartu zituen konpromisoak eta zeharkakotasunaren bidez koordinazioa hobetzeko neurri multzoa biltzen zituena.

Gainera, Emakume eta Gazteria Legebiltzar Batzordean martxoaren 3an egindako agerraldiaren berri ere eman du. Agerraldi hartan I Gazte Planaren emaitzen ebaluazioa aurkeztu zuen eta II Gazte Planak 2003an izango duen garapenaren aurreikuspenaren berri eman zuen.

Era berean, Batzorde Teknikoari buruz, urteroko ohiko bi bilerez aparte, aparteko zenbait bilera ere egin ditu SII Sen egoitzan. Bertan instituzio eta sail bakoitzean gazte plan eta programen programazio eta ebaluazio deszentralizatuak egiteko irizpideak adostu dira. Baterako lan honen emaitza



laster argitaratuko da *Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua* izenburupean. Eskuliburuan, besteak beste, beste autonomia erkidego, herrialde eta gazteria behatoki batzuetan erreferentziazkoak diren ebaluazio adierazleak jaso dira.

2003ko otsailean gauzatu zen II Gazte Planaren Komunikazio Kanpainari buruzko txostenaren berri ere eman da.

Instituzio bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak zehazkiago baloratzeko, sailburuak Eusko Jaurlaritzaren berri eman du.

1. Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko programazioa eta tokiko gazte planak sustatzeko foru aldundiekiko hitzarmenen finantziazioa (1.200.000 € urtean) onartu du.
2. Zerikusia duten beste erakunde arteko plan batzuekiko koordinazio lanetan hasi da, 2004an sendotu egin den lana.
3. 2003ko otsailean, Kultura Sailak Gazteakera atari gaztea martxan jarri du, Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren baitan eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoarekin elkarlanean.

Gainera, atari horren barruan kudeaketarako Gazte Kudeaketa tresna txertatu da. Tresna horren helburua gazteekin zerikusia duten administrazio prozesuak epe ertainean izapidetzea da. Horrela, bada, lehenengo fasean Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren berriazko zerbitzuen izapideak egiten hasi dira: Gazte txartela eta gainerako karnetak eskatzea, edo auzolandegietan nahiz Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan izena ematea. Denbora aurrera joan ahala, gazteentzako baliabideak lortzeko beste sail eta sektore batzuetara ere zabalduko da.

Jarraian, Miren Azkarate foru aldundien berri ematera igaro da.

1. Batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Batzordea hauteskundeen ondoren izendatutako zuzendari berriekin berritu duela jakinarazi du. Azaroaren 3an 2004ko programazioa onartu zuela ere adierazi du.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiak Gaztedi Foroa sortu du urriaren 14ko 196/2003 Foru Dekretuaren bidez. Gaztedi Foroa Bizkaiko toki-mailako gazteentzako zerbitzuen foroa da. Bizkaiko alkate eta zinegotzien aurrean aurkeztu zen 2003ko urriaren 24an, EUDELekin batera. Bizkaiko udalerrri gehienak Gaztedi Foroan sartu dira. Toki mailan zeharkako politikak garatzeko dagoen interesaren erakusgarri da hori.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, udal teknikarien topagunea antolatu zuen 2003ko urtarrilean eta, beranduago, udal hauteskundeak eta



gero, urriaren 3an, alkate eta zinegotzien topagunea eta irailaren 22an teknikariena. Topaketa hauen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoan II Gazte Plana garatzeko proposamena azaltzea zen.

3. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, Koadriletako Alkate eta Presidenteentz Topaketa ospatu zuen, bi egunetan bereizita: irailaren 29an eta urriaren 1ean. Topaketa horietan II Gazte Plana lurralde horretan, toki-mailan garatzeko proposamena aurkeztu zen.

Miren Azkaratek adierazi du Gazte Plana udal mailan bultzatzeko erronkari ekiteko hainbat baliabide jarri dela martxan, honako helburu hauek lortzearren:

1. Gazte politika udaletan sendotzea:
 - a) gazteentzako zerbitzuak garatuta eta teknikari kopurua handituta; eta
 - b) Gazte Plana udalerrri bakoitzaren errealitateari egokitzeko aholkularitza emanda.
2. EAEko gazte ekipamenduen sarea sendotzea.

Horretarako, hitzarmen bat ezarri da urtero Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien artean. Hitzarmen horren bitartez, Planaren indarraldiko urteetako bakoitzean 1.200.000 euro inbertituko ditu Eusko Jaurlaritzak eta beste horrenbeste hiru foru aldundien artean. Horri guztiorri interesa duten udalen diru-ekarpenak erantsi behar zaizkio.

Horren haritik, sailburuak 2003an lurralde bakoitzean erantzundako eskarien berri eman du, bai Plana aldundi bakoitzean bultzatzeari dagokionez, bai toki eremuan tokiko planak lantzeari edo bulego teknikoak eratzeari dagokionez, bai eta Euskadiko gazte ekipamenduen sarea garatzeari dagokionez ere.

Era berean, jakinarazi du hitzarmen bakoitzaren jarraipena egiteko Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundiaren arteko Bitariko Batzordeak esleitu dira. Hori erakunde arteko koordinazioa lurralde mailan hobetzen ari da, ezbairik gabe. Planaren 2003ko koordinazio, sustapen eta garapen jarduketekin jarraitzeko, Gazte Planaren Idazkaritzak eta hiru foru aldundietako koordinatzaileek tokiko gazte planen aholkularitza zerbitzuekin izandako bilera aipatu du Miren Azkaratek. Bilera martxoaren 13an izan zen eta bertan udal planak lantzean aintzat hartu behar ziren prozedurak eta oinarrizko irizpideak adostu ziren.

Gizarte eragileei dagokienez, martxoaren 27an topaketa batzuk antolatu ziren hainbat instituzio publiko eta gizarte eragileren partaidetzarekin. Topaketa horietan gizarte eragileek II Gazte Planaren garapenean bete behar duten egitekoaren eta eginkizunen inguruko hainbat ikuspuntu trukatu ziren.

Martxoaren 19an, 20an eta 21ean Gazte Politikei buruzko Nazioarteko Biltzarra ospatu zen Bilbon, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, BBKk eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatuta eta UNESCOren, Bilboko



Udalaren, EUDELen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren lankidetzarekin.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Gazte Planaren jarraipena dela eta Zuzendaritza Batzordean, Batzorde Teknikoan eta, bereziki, Gazte Ontzietan izan duen partaidetza azpimarratu nahi izan du sailburuak.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidente Alicia Susok sailburuari hitzok eskertu dizkio. Era berean, Gazte Ontziek martxan jarraitzen dutela eta beren helburua gazteen iritziak biltzea eta Gazteria Zuzendaritzari gazte politikak lantzean lehenetsia izan behar duten irizpideak proposatzea dela gogorarazi du.

Azkenik, Miren Azkaratek Gazteen Euskal Behatokiaren 2003ko jarduketak — ikerketari, estatistikei, komunikazioari, dokumentazioari, argitalpenei eta prestakuntzari buruzkoak— azaldu ditu.

Sailburuak Behatokiaren egoitza —Bilboko Uriortu kalean kokatua— atontzeko lanak hasi direla jakinarazi du. Egoitza hori uda pasatu eta gero inauguratzea espero da. Hori dela eta, abagune hau aprobetxatu du bertaratutakoak inaugurazio ekitaldira gonbidatzeko.

Txostenaren bigarren atalean ebaluazio kuantitatiboa aurki daiteke, hau da, instituzio bakoitzak 2003an garatu dituen ekintza positiboaren betetze maila.

Horrenbestez, instituzio bakoitzak —Donostiako Udalak izan ezik, ez baitu daturik bildu— II Gazte Planaren arloetako bakoitzean erabili duen gastuaren berri eman du sailburuak. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmena dela medio, Donostiako Udalak oraintsu jaso ditu udalaren baitan gazte politika integrala bultzatzeko hainbat bitarteko.

Era berean, sailburuak ohartarazi du aurkeztutako txostenaren ageri diren ekintza guztiak —bereziki instituzio jakin batzuei dagozkienak— ez daudela ebaluaturik, sail jakin batzuen datuak falta direlako. Horrek zeharkakotasuna non indartu behar den adierazten du.

Laburbilduz, 300 baino gehiago izango dira burutuko diren ekintza positiboak (Donostiako Udalarenak barne hartu gabe), eta gastua, guztira, 123.153.342,69 eurokoa izango da.

Miren Azkaratek jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, etxebizitzaren arloan, 35 urtera arteko 35.143 gazteren kenkariak direla-eta bildu ez duen zenbatekoa —16.697.456 euro— sartu duela, beste bi aldundiek ez bezala. Hona hemen zenbateko horren jatorria: alokairurako eta ohiko etxebizitzan inbertitzeko kenkari bereziak eta ondare eskualdaketan gaineko zerga.



Gainera, gazteek bost arloetako bakoitzean —enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta kultura— dituzten premiei erantzuteko egin diren ahaleginak urterik urte finkatu eta zabaltzeaz aparte, ahalegin berezia burutzen ari da zeharkako arloan —balioak eta gazte indarkeria—. Arlo horretan 2.152.790,66 euroko inbertsioa egin da 2003an burutu diren 23 ekintzetan.

Azalpen luze honen ondoren, sailburuak Gazte Planaren 2003ko jarraipen txostena ontzat hartzea proposatu du. Bertaratutakoek aho batez onartu dute testua.

3. Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikaren eta gazte politikaren osagarritasun mailari buruzko 2003ko balorazio txostena onartzea, hala badagokio.

Aurkezturiko dokumentuaren hirugarren atalean (EAE-ko II Gazte Plana onartu zuen 2002ko maiatzaren 28ko Jaurlaritzaren Kontseiluko Erabakiari jarraiki), Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikaren eta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak landutako gazte politikaren osagarritasun mailaren eta politika horien eta II Gazte Planaren helburuen arteko koordinazio mailaren balorazioak egin dira.

Sailburuak honako ondorio orokor hauek azpimarratu ditu:

- Lehenik eta behin, politika sektorial horien eta Gazte Planaren arteko osagarritasun maila egokia dela azpimarratu behar da. Hori ez litzateke harritzekoa izan beharko, Gazte Planaren bertute handienetako bat gazteen premiei buruzko diagnostiko adostu batetik abiatzea baita. Hori dela eta, beste esku-hartze sektorial batzuen azterketarekin bat dator.
- Bigarrenik, gazte politikak zeharkako izaten jarraitu behar du. Gazte Plana prestatu zenean agerikoa zen zeharkakotasuna ez zela ez lau urtetan ez zortzi urtetan lortzeko moduko zerbait. Epe luzean egin behar zaio aurre erronka horri.
- Azkenik, beharrezkoa da sail artean koordinazio handiagoa egotea.

Miren Azkaratek gogorarazi du horiek izan zirela Zuzendaritza Batzordearen aurreko bileran landu ziren gai nagusietako batzuk. Horien inguruan honako hobekuntza neurri hauek adostu ziren:

- Mahai sektorialak eratzea;
- beste planekiko koordinazioa;
- programazio eta ebaluazio deszentralizatuak;



- gazteentzako baliabideen gida; eta
- informazio estatistikoaren trukea.

Horiek azaldu eta gero, Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikaren eta gazte politikaren osagarritasun mailari buruzko 2003ko txostena onartzeari ekin zaio. Sailburuak 15 eguneko epea eman du proposatutakoaren inguruko oharrak idatziz helarazteko. Hori esanda, ontzat hartu da aurkeztutako txostena eta gai-zerrendaren hurrengo puntua lantzen hasi da sailburua.

4.- Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Legebiltzar Batzordearen aurrean egindako agerraldien berri ematea.

Miren Azkaratek jakinarazi du, Zuzendaritza Batzordeko presidente den aldetik, 2004ko maiatzaren 20an agerraldia egin zuela II Gazte Planaren 2002ko Jarraipen Txostena —abenduarien 3ko Zuzendaritza Batzordean onartua— aurkezteko. Gero Nekazaritza eta Arrantza Saileko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko eta Osasun Saileko ordezkariak hitza luzatu die, 2004ko otsailaren 19ko agerraldien berri eman zezaten.

Sailburuak ezagutzera eman du Gazteria eta Gizarte Ekintzarako zuzendariak ere Eusko Legebiltzarrean agerraldia egitea aurreikusita zegoela, Alderdi Popularrak hala eskatuta, baina, azken momentuan talde eskatzaileak atzeratu egin zuela.

Jarraian, Miren Azkaratek hitza luzatu die Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko ordezkariari, Osasun Saileko ordezkariari eta, azkenik, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkariari, 2004ko otsailaren 19an Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Legebiltzar Batzordearen aurrean egindako agerraldien berri eman zezaten.

Agerraldi horietan 2003an II Gazte Plana exekutatzeko sail bakoitzak izan zituen erantzukizunak eta burutu dituen jarduketak azaldu ziren. Sailek gazteen arloan burututako bestelako jarduketa batzuk ere azaldu ziren.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko ordezkari Jesús Monrealek bere sailburuak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zituen helburu eta jarduketak azaldu ditu. Horiek guztiak 2003an sailaren hiru sailburuordetzetan burututako hogeikintzatan bildu daitezke. Gastua guztira 42.544.522 €koa izan da. Horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: ikastetxeetan balio hezkuntza sustatzeko taxututakoak; aniztasunaren eta desberdintasunen tratamendura zuzendutakoak; ekintza positiboko neurriak (abantaila fiskalak eta kontratazioak egiteko dirulaguntzak), besteak beste gazteentzako lana sortu eta mantentzeko, lanaren banaketa sustatzeko, autoenpleguari eta enpresen sorkuntzari



laguntzeko eta bizitza osoko prestakuntzaren garapena bultzatzeko. Horietako bakoitzaren laguntzen zenbatekoa azaldu du, bai eta ekintza bakoitzaren onuradun gazteen kopurua ere.

Jarraian Osasun Saileko ordezkari Marisa Arteagagoitiari luzatu dio hitza. Marisak gazteei bereziki eragiten dieten osasun arazoaren laburpena egin du. Bere Saila horiei erantzuna ematen saiatu da, batetik gazteen artean bizimodu eta jokaera osasungarriak sustatuta eta, bestetik, gazteen osasunaren aldeko esku-hartzeen arteko koordinazioa —sail eta erakunde arteko nahiz gazteen artean osasun programen kudeaketan diharduten gizarte eragileen arteko koordinazioa— sustatuta.

Hurrengo azalpenak ematen Luis Javier Tellería izan da, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkaria. Nekazaritza eta Arrantza sailburuak otsailaren 19an Emakume eta Gazteria Legebiltzar Batzordearen aurrean egindako agerraldian bere Sailaren jarduketan berri eman zuen. Horien artean EAEko Gazteentzako Nekazaritza Plana dago, nagusiena, ezbairik, gabe. Izan ere, Gazte Planaren baitan ere garrantzi handikoa da. Plana Nekazaritza eta Arrantza Legebiltzar Batzordearen eta Emakume eta Gazteria Legebiltzar Batzordearen aurrean aurkeztu zen aldi berean. Gai-zerrendaren hurrengo puntuan eman da horren guztiaren berri.

5. EAEko Gazteentzako Nekazaritza Planaren aurkezpena, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak prestatua, foru aldundien lankidetzarekin.

Luis Javier Tellería jaunak plan berria aurkeztu du. Plana nekazaritza ustiapenetako titularrak zahartzearen arazoari globalki aurre egiteko neurri egituratuaren multzoan datza. Beraz, bere helburua nekazaritzaren sektorea eta, oro har, landa-ingurunea gaztetzea da.

Luis Javier Tellería jaunaren iritziz, Gazteentzako Nekazaritza Plan berritzailea Sailaren legegintzaldi honetako ekintza politikoaren oinarrietako bat da.

Planaren helburu nagusia datozen 10 urteetan —2003tik 2013ra— nekazaritza sektorean 1.000 gazte gehiago sartzea da.

Planak egiturazko 20 ekintza biltzen ditu, bost ardatzetan egituratuak: aholkularitza eta monitorizazioa; lehenengo instalaziorako laguntza-neurriak; lurra bereganatzeko aukera; landa-ingurunea eta bizitza-kalitatea; eta ekintza osagarriak. Gastua urtean 5 milioi eurokoa izango dela espero da, eta zenbateko hori Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta, hein txikiagoan, Europako Batzordeak finantzatuko dute.



Gazteentzako Nekazaritza Plana aurkeztu ondoren, Luis Javier Telleriak bere Sailak 2003an garatu dituen beste jarduketa batzuk azpimarratu ditu.

- Landa-sustatzaileak sentsibilizatzeko eta animatzeko Berpiztu programa eta Landa-sustatzaileak aholkatzeko/monitorizatzeko Geroa programa. Biak Mendikoik zuzenduak, eta orotara 120.000 € inguruko gastuarekin.
- Nekazaritza-prestakuntza trinkoko ikastaroen programa (Baratzezaintza, mahastizaintza eta ardogintza, lore-arte eta Artzai Eskola) nekazari gazteentzat. Exekutututako gastua 450.000 €koa izan da.
- Pasaiako Itsas Arrantzarako Ikastetxe Politeknikoan (Gipuzkoa) ikasteko beka ematea, 60.000 €ko gastuarekin.
- Gazte profesionalak arrantza-ontzien jabe egiteko egiturazko laguntzak. Gastua guztira 800.000 €koa izan da.

Amaitzeko, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren jarduketa gehien sail eta erakunde arteko izaera azpimarratu behar da, bereziki Gazteentzako Nekazaritza Planaren kasuan, Gazte Planetik bultzatu nahi den zeharkakotasunarekin bat datorrelako. Hori dela eta, gaiarekin zerikusia dutenen ekarpenak espero dira.

6. II Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapen mekanismoei buruzko infomazioa.

Miren Azkarate sailburuak hitza hartu du eta abenduaren 3ko Zuzendaritza Batzordean hartutako konpromisoak gogorarazi ditu. Konpromiso haietan sailen arteko koordinazioa hobetzeko bost neurri onartu ziren:

1. Mahai sektorialak: sailburuak artean eraturako mahaien zerrenda eman du. Beste mahai bat sortuko da uda eta gero.
 - Bakearen Hezkuntza (Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza).
 - Osasunaren hezkuntza eta Drogamenpekotasunak (Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Osasun Publikorako Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza).
 - Etxebizitza (Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Etxebizitza Sailburuordetza).



- Gazteei buruzko ikerketak (Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea).
- Europako gaiak (Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Europako Gaietarako Zuzendaritza).
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarekin batera beste mahai sektorial bat osatu behar da, enpleguari buruzkoa.

2. Era berean, sailburuak gogorarazi du lotura duten sail arteko eta erakunde arteko planekiko koordinazio handiagoa behar dela. Jarraian artean Gazteria Zuzendaritzaren partaidetza izan dutenak adierazi dira:

- Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilua.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
- Drogamenpekotasunen Bost Urteko Plana eta Droga Menpekotasunen Aholku Kontseilua.
- Euskal Estatistika Plana.
- Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Plana.
- Pertsona ezgaituak EAEko lan-merkatuan gizarteratzeko Plana.
- Immigrazioari buruzko Euskal Plana.

3. II Gazte Planak beste aurrerapausu bat proposatzen du aurreko planarekin konparatuta: programazio eta ebaluazio deszentralizatuan sakontzen du, zehaztutako metodologia eta irizpideei jarraiki.

Horren harira, sailburuak azaldu du I Gazte Planetik burutzen ari ziren programazio eta ebaluazio kuantitatiboez gain, II Gazte Planarekin gazte politika deskribatzen duen dokumentu bat landu dutela Eusko Jaurlaritzako sailek. Agiri hori Eusko Legebiltzarraren aurrean egindako agerraldietarako euskarri baliagarria suertatu da. Lan horri ekin diote beste instituzio batzuk ere, baina ez guztiek.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako eta gainerako instituzioetako sail bakoitzean ekintza positibo bakoitzaz arduratzen den teknikariak bete duen galdetegia Gazte Planeko Idazkaritzaren esku dago. Kasu honetan ere, instituzio batzuenak falta dira.

Informazio iturri horiei guztiei eta kanpoko ebaluazioak lantzen ari den erakundearen —SIISen— lankidetzari esker, gazte politika integraletan lan egiten jarraitzeko garrantzi handiko elementu berriak eskura egongo dira. Hona elementu horietako batzuk: Gazte Planaren ekintza bakoitzaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa, erakunde bakoitzaren programazio agiria eta II Gazte Planaren tarteko ebaluazioa.



4. Beste gai bati helduta, sailburuak koordinazioa bultzatzeko beste neurri bat aipatu du, informazio trukearen hobekuntza, Gazteen Euskal Behatokiaren bitartez.

Alderdi horretatik, Miren Azkaratek Gazteen Euskal Behatokiaren eta Herrizaingo Sailaren arteko informazio trukea aipatu du. Truke horrek gainerako sail eta erakundeekin jarraitu beharreko ildoak erakusten du.

Horrenbestez, Gazteen Euskal Behatokiaren informazio eskaerak jasotzeaz aparte, gazte politikaren edozein arreta arlorako interesgarriak izan daitezkeen datuak argitaratuz edo sortuz gero, Gazteen Euskal Behatokiari helaraztea eskatu du Miren Azkaratek, eskaeraren zain egon gabe.

7. Galde-eskeak.

Inork ez du oharririk egin nahi izan.

Lantzeko gai gehiagorik gabe, eta 12:40 direnean, Kultura sailburuak bilera amaitutzat jo du.